


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ITUREN 'GO ERRETORA EUSKAL IDAZLEA



Ituren'go Herrikoetxea. (AIDA argazkia).

Elizaren ondok Ituren'go bazterrak ederrak ikusten dira; zelaiak beran, Ezkurra ibaia ondoan, landak orlegi, soroak artoz beteak, basoak ta mendiak, gaitzeko aldean Mendaur zuriz jantzia bere 1.137 metroekin, gaururrean Trinitate eliztxoa.

Nere ustez, herri onenetakoa, erri onentzat, etorri berria daukan erretora degu; Fermín Ixurko, Uzi'ko semea, euskal idazle bikaina. Euskal idazle amorraina da. Euskaldunentzat nolako bitxia dan euskera ba daki. Ez du Euskalerrria gutxi maite. Urte asko Aragoien, Jaka ondoan igaro ditu ta orain bizipaira urte Naparro'ra apaiz bezela etorria da. Ain zuzen Ituren errirako izendatu dute. Apaiz argi batentzat erri-bikaina. Irakurtzen ta ikasten asko ari da. Beretzat euskerak ez dauka ikutapenik. 1972 garren urtean asi da, era bat euskeraz idazten. Esango nuke urte ortan Naparro'ko euskal kultura saillean liza; berri bat jalo zaiola, zorionez, gaiteria oso ona, nartarren artean onenetakoa. Euskera nai duan bezela erabilitzen du. Gauza goxoak esaten ba daki; zorrotz eta garbi jokutzen ere bai. Berriari arintasun aundia ematen die. Enseguita sakonak egiten ditu. Lerroak multzoka steratzen saizkio. Urte batean Principe de Viana aldizkarian idatzi duna ikusita, esango nuke, urte gutxi barruan Naparro'ko euskal kulturari ikaragarriko bultza eman goz diola. Oso gizon langillea ta azkarra degu. Bere emaitza aberatsa izango da Naparro'rentzat. Orrelako gizonak ez dira urtearekin ordaintzen. Ituren'go errian euskararen alde lan asko egiten ari dala, ez dago esan bearririk. Mezak ta danak, kristaizkaberidea eguneror, itzaidiak eta abar danak euskeraz ematen ditu. Gizaseme soilain nola mintzatzan dan ere ikustekoa da. [Ekin eta jarra!]

Erriak daukan bizi indartsua sakontzeko, ezagutzeko ta kultura mailara jasotzeko, orrelako gizonak gure artean bearezkoak dira.

LATXAGA

EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Joan den otsailaren 23 an Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arrunta egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gai nagusi batzuen laburpena:

Etor-ek ateratako gupril gisako Adiztegiari buruz, hauxe esan beharrean gertatzen da Euskaltzaindiak: Gupril hortan dauden adizki batzuk Euskaltzaindiak onartuak izanaraz, edizio horrek ez duela ofizialtasunik eta ez inongo balmenik gure aldetik.

Pierre Lafitte euskaltzain jaunik txosten bat irakurri zuen: «Euskal aditzeko hiruk-atzikiak». Ondoren elkar hizketa bat izan zen azterketa-gai hontaz.

Euskaltzaindikiko barne araudiaren lehen asmoa gerta dezala agindu zitzaion hartako den batzordeari.

«Euskera» Euskaltzaindiaren aldizkariak truke eginez, euskal aldizkariaren bilduma osatzeko bidez hitz egin zen. Haritschelhar lehendakari ordeak berri pozgarri bat ekarri zuen: heldu den udan, udako euskal Unibertsitatea antolatuko dela Bordenaleko Unibertsitatearean izenean, ofizialtasun osoz eta Departamenduko Konseilu Jeneralean itzilat. Eta halaber Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzara eskatu zituen. Eta eskatu bezala erabaki zen.

Maiatzaren 3, 4, eta 5 ean Bordenaleko Unibertsitatean Jardun batzuk izango dira honako gai hontaz: XIX. mendeko lehen erdia Euskal Herrian. Jardun hoietarako ere Lehendakari ordeak Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzara eskatu zituen. Eta bai lortu ere.

Eskola hiztegia prestatzen ari den batzordeak hiru zerrenda aurkeztu ditu. Zerrenda hoiak euskaltzain oso eta aholkulariei pasatuko zaizkie, oharrak egiteko hila-beteko epea ematen zaiela.

(Euskaltzaindiaren Prensa-Bulegoko Agiriak)

EUSKALERRIAN BARNA



«Inauteria»

Izenburu honekin «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones» delakoak euskeraz eta erderaz idatzitako liburu berri bat argitaratu eman du arestin. Donostiko «Caja de Ahorros Municipales» aren «Kultur Elkargo» honek Euskal Herriari buruzko mota guztietako gaiak arturik liburu ugari eta oparoon argitaratzen du.

Editorial honek bere lanak Sail batzuetan ditu partitua. Euskal Herriko Gizonak, Aita Larremendiren idazlanak, Ensayo delakoaren liburu orria eta Euskeraz idatzitakoak.

Azken liburu hau laugarrenetik dagoikona da. Bere izenak ongi adierazten duen bezala «Inauteria» (bere erderazko izenburua «El Carnaval Vasco» da) liburuan Euskal Herriko Inauteriarren berri, xehe tasun, asiera, iturburu eta agertzen dira. Lau zati ditu gure liburua: Lehenbizikoa Inauteriarren azterketa eta jatorria ikutuzten dira baita gure herrietako zenbait Inauteri bereziki berriak ere; hala nola Zuberoko maskaradak, Lanzeko Inauteria, Adios herriko «Judak», Arbizuko «Aittun eta Amiaña», Zaldiendo'ko «Marquitos», eta abar.

Bigarrenean gure herrietako zenbait Inauteak: Bizkaiko mendeabaitetik aita, Gipuz osari jarraitzen eta Inozko Etxaleku'ko herriraino elduz. Irugarren partean Inautez kanpo ospatzen diren herri batzuetako Inauteriak: hemen Nafarroako herri multzo bateko Inauteak azaltzen dira. (Leitze, Areso, Ituren, Zubietza, Uhitzi, Araizko Baretakoak, Ziga, Oronotz, Beruete, eta).

Eta laugarren zatian Tolosako Inauteriarri osoan zuzenduta da.

Bere egilea Justo Garmendia Larrañaga da. Tolosako seme zintzo hau berebiziko lana egiten ari da Euskal Herriari eskeindua. Liburu batzuk baditu eginak euskal langintza gaitzat arturik. Idazle nekazaria da, herri herri gauzak eta herriak jasotzen ibiltzen dena. Liburu hau euskeraz eta erderaz idatzia dago. Hit-

zurrekoa nere lagun handi eta langile zintzo den José María Satrustegi apes jaunak egindakoa da. Liburuaren balioa: 200 pezeta.

«Etniker» taldea

Miguel Barandiaran etnologo handiaren susunpean, Nafarroako Unibertsitatean Etnologia Katedrak «Etniker» deritzaun lan eta egintzak egiten ditu. Orain Euskal Herri osora «encuestas» moduko orriak zabaldu ta gure Euskal Herriko Etnologiari dohakion guziaz aztertu eta bitzeko, Deustuko Unibertsitate bere «Euskal Kultur Mintegia» delakoaren bidez, langintza, eta erantuzkan emateko lanean murgilduta dago. Gipuzkoan ere «Arantzi» taldeak lan bereharen lan egiten du, eta Irufean «Principe de Viana» ren Elkargoa, Satrustegi jauna duela buru, lan honi ere lotu zailo.

Asmo nagusia Euskal Herri guziko mapa etnografikoa egitea da.

«Etorkizuna»

Irufeko euskaltale batzuek «Etorkizuna» izeneko haurrentzat euskeraz TBO moduko liburuxkak argitaratzeko Elkarte berri bat sortu dute. Ale bat argitaratua du oraingoz «LAMINZULO» deritzana. Ongi egina da, hala azalez nola barengoz. Bereirudi eta kolearek txukunak dira. Barcelonaan JAIME-LIBROS S.A. Editoriak ETORKIZUNA Elkarte honendako argitaratzen du eta SIRVEN SAE moldiztegia, Jose Mari Satrustegi izan da euskeratu duena.

Hile bakoitzean ale bat argitaratzeko asmatan daude, urtean amabai bezaz azalduko dira. Gure euskal haurrentzako txit egokiak dira.

IKUSLE

AKULAR SARIA

OLLOA MANTSOTZEN

Egun batean, irakasleak esan zuten: Aspaldi gizonak hartzen zuten abereak eta mantzotu, mantxotu egiten zubiela.

Hori entzunik mutiko batzuek, Benito, Aitor, Patxi, Imanol, Joxe Antonio eta Juan Josek, pentzatu zuten olloa hartu eta mantzotzera eta oloa hartu eta lolara eramane eta gaixoa lolaz beterik utzi zuten.

Damutuata azkenik garbitzera eramane zuten errekarara gero pakean uzteko.

Karasatorre, tar Garbiña 7 urte.
Ikastola «Andre Mari» Etxarri-Aranaz, koo

MUGA ALDEAN

Egun batean kontrabandista batzuek pasatu bear zuten Kanpo Santuko bidean barna.

Kontrabandistan nagusia zagon guardian ta norbait ote zan an barna. Eta alako batean ikusi sition bi guardia zibil etorri eta jarri zirela Kanpo Santuko atean kontra. Nagusia bere artean esaten zuen:

—Nik zer egin bear dut, orain etorriko dire nere lagunak eta ok omen.

Alako batean gogoratu zalon pasatu bear zuela paretan barrenengo aldera, eta poliki poliki joan zen guardia zibilen ondoan. An omen zagonin biek olatzetan, zigarroak fumatzan. Nagusia poliki poliki pasatu zuen atin zutolik eskua eta ukitu zion bere matelian. Biek eman zioten lasterrari eta botak ia autsiak joan ziren parte ematera purgatorioko animan bat izanen zela uste zutelako.

Orduan besteak probetxatu zuten eta eben paketik artu bizkarrean eta aurzera segitzeko.

Mirentxu Lourdes Maritxalar.
Amairu urta.

Lesaka.

PAKEA

Zenbat eta zenbatek itz egiten dute pakearengain jaikin gabe zer dan eta zer nai duten. Danok nai degu pakea guretzat eta bestietzet ere nai degula esaten degu. Ez gutxi esatera bakkirik izaten da. Ala ez esate elitzake ongi egongo, baina gure eginkizunak nolakoak dira? Bakoitzak ongi ibiliteren atzetik dioja besteak bertuko baitira ere. Egin-kizun oiek ezartamate pakea berekin eta oartu gabe ustekaitzean gauda.

Zer da pakea? Paulo VI' garrenak esan digu zer ezan eta zer dan pakea. «Gudan eta bururikan ez ibiltzea ta asar ez egotea ezta naiko. Pakea bakoitzak bestearen ideak errespetatzea da.»

Zer ezan. Gaiak guda edo burruka edo asarrik ezpada pakean gaudela uste dute. Aita Santuak auel danel esaten die eztaudela egian ustekaitzean baizik. Bi gauzengatik ezta askotan guda edo asarrea izaten. Bat urrutik egoteakin bata besteari eztrialako ikusten. Beste, goian egoteakin eta indarra bere eskutan izatekin lagun urkoa nai ta nalez txilik eta geldik egon bear dalako. Bietan esan al ditek pakean gaudela? Ez, inondik ez. Zoritzez ustekaitze au eundia ta askorena da.

Zenbat aldiz ezta ez gudarrik eta ez asarrik, baina begiritzek eta asmoak nolakoak dira? Jakingo ba gaituzke biotzaren gogoak eta

asmak ikusiko genduka nolako agiri dana ezten pakea, pakearen trudi baizik eta orrek in eztegu ezariko ere egiten.

Zer dan Paulo VI' garrenak bateg ere bakoitzak bestearen ideak errespetatzea dala esan digu. Itz auelkin zartako aundi bat eman die asko ta askori ta bateg ere lurbira geieneko egintzeri. bateg bafo gelago esango du berak errespetatzen ditula beren mendearen daudeen ideak bafia gero ezite uzten, ez gezurra, egia baizik esaten. Ori al da errespetatzea? Alakotan ezteiteko pakearengain itzik egin txiltzea obs da. Zoritzez ezta egintzaria itxiduko, bearko ta, mendekoa baizik, bestela ba daki zer dorkion: giltzaptan sartu. Ori da gaurko gezurreeko pakea.

Gaurko egunean nua da errespetua? Semeak aitari, semea eta bateg ere bial onak ba dira. Agintariak mendekoari denetan beren gogoak egitea ba dituzte, ta bestela zer? Mendekoak egin tarian gogoan jarritzen ba zai. Au dana eginkizunetan alegia, ta ideetan berdin. Esan dezakegu ba pakean gaudela? Ez, ez gauda pakean. Aita santuak eskatu digun bezala ezpada guraik ezta asarrik, eta beste guztien asmoak edo ideak errespetatzen ba ditugu orduan esan dezakegu ba pakean gaudela.

FELIPE ARANA

CALIFORNIA-ko euskal ASTEKARI-tik zerbait geiago. - (V)

Goytino ezpeletar euskarazale boroaren aldizkariak zenbait berri ekarriko ditugu berriz ere.

Bortxazko ezkontza

Miles deitzen den kantineron bat Santa Monica-n bizi zen andre batekin (esposatu gabe); unione hortatik lau haur sortu ziren. Miles, bere aldetik alargun bat zen, 20 urtetako seme batekin geditua. Egun hautan bere semea eta andre-ordea, behar ezden maneran arapatu, eta semeari, hiltzen zuelan erran dio, berehala ezatzeke hura esposatzen ezbaibatzuen. Nahitaez semeak aita

obeditu du eta familia guziaz gure herrirat (Los Angeles) yin dira, ezkontzeko paperean hartzera; bakoizko yube batek juntatu ditu. Baina bi-haramunean semeak aita arrasta-azi du oharitu delarik, sobe ra punitu (kastigatu) zuela, bere amatzuna-ren esposatzerat obligatuz.

Miles jauna, egun hautan pasatzekoa da justiziaren, eta esperantza dugu, untsa punitu izanen dela. Sabu hemen, holako itsuskeriak nua ikusten dira?


Laudorioak

Los Angeles Herald gure herriko berri-ketari amerikanoak, gure paperaz ke'ones, joan den asteazkenean zion:

Mr. GOYTINO, editor of Le progrès, has comenced the publication of a paper in the basque tongue... euskeraz erran nahi baitu; Mr. J. P. GOYTINO, Le Progrés deitzen den berri ketari frantsesaren egulleak Eskualdun paper bat hasi du ESKUALERRIA deitzen dena. Segur guira eskurara leitzen dute nek paper hori ongul eguna kausituko dutela eta interesanta; Mr. Goytino-rekin ez-litake bezela izan.

Konplimendu hori hanitz estimatzen dugu, eta eskerak bihurtzen, hoin ederkigutaz mintzo denari.

(Aldizkariaren buruzagi a, bezaz, letradunen artean estimatua zen; etzen norain California, eta aipatua berak ateratako euskal paper-a).



Errekara joaitetik

Ez dire xolament gure Bankoak hestean; gauza hori memento hontan (1893an) eldendi guztian guertatzen da. DENVER EN (Colorado), joan den astelehenean, diruzko etxe guziaz gure atek hetsi dituzte. Lerro lerro, lertsunak beza'a, jendeak diruaren galdez karriketan ziren.

Jendea nola zen asalduta bankeroek ikusi dute a ik, eteak zeratu dituzte. Dioten bezala, nehorik ez omen du bat galduko. Kansas City deitzen den hirian, gauza beza gertatu da; Banko guziaz, elgar aditu ondoan, hetsi dira.

Hola hola joan balaibadire (balibadozi) na joziok, errekarat gozaila erral ten shal dugu. Gure Administrazio demokratik, orai artino ezdu on hanitz egulin. Fabrika handienak beti hetsiak dire eta nehorik ezda batera le (artile) galdetik. Bertzen ere, aste hantako Banko zerrataz horrek ngozioa arras hil du. Nearea pre-

zloan, joan den astetik huanit ez da kanbiorik.

Astekariaren beste numeroik, huna berri labur batzu:

Papurrak

Madama M. Bastanchuri (guztiz arranchero ezaguna izan denaren anderea), zoina eri baita denbora apur hontan, Nortorat, ALASKA deitzen den Estado batera joanda, midikuen ordrez.

Madelen ETCHEMENO Y, gure herrikoa (Los Angeles), Eskola Normaleko etsaminean errezebitua izan da berriki. Hortarik agueri da Eskualdun haurrak, barteak baino tontoago ez dirai.

Mr. Biscailuz, eskualdun abokataran (eta Astekariaren ere sartua) andreak, Korwari (Juzgadoari) joan den asteazkenean, diborzioa galdatu du senarraren ganik. Baina uste dugu afera hori Tribunalerart joan gaba, anto etuko den.

Mr. F. L. O. Roehrig, San Francisco-ko sabant (jakintzu) famatu batek, aste hontan letra bat izkribatu gatu (sic) eskuraz, zointa gertatzen baitaiku: —Errezebitu dute zure Eskualdun kazeta. Ene «ustez, ongul eguna da, Esker mila. Egoiten naiz zure zerbitzari F. L. O. Roehrig».

(Hara non agertzen den euskalazale edo euskalari arrotz bat, gure artean gutti ezaguna izan dena. Beste aldi batean gai berek jarraikiko dugu.)

Huna European odu.ikatzen

diran Eskualdun berri-ketari direzionek:

Frantziar: ESKUALHERRIA (St. Jean de Luz, B. P.) — LE REVEIL BASQUE (St. Palais, B. P.). — Epa nia: ESKUALERRIA (San Sebastian, Guip.). — Alemaniar: EUSKARA (41 Holzmarktstrasse, Berlin-0).

California-ko ESKUALHERRIA-k (Astekari hune) bihotzeko sendimendu hobernak igortzen ditu berri-ketari horietan eta diote, leizua (Irakurle) han itz desiraten, munduko parte guzietan.

Bizi bedi luez gure Eskurara maiteak!

Mr. F. L. O. Roehrig, San Francisco-ko sabant (jakintzu) famatu batek, aste hontan letra bat izkribatu gatu (sic) eskuraz, zointa gertatzen baitaiku: —Errezebitu dute zure Eskualdun kazeta. Ene «ustez, ongul eguna da, Esker mila. Egoiten naiz zure zerbitzari F. L. O. Roehrig».

(Hara non agertzen den euskalazale edo euskalari arrotz bat, gure artean gutti ezaguna izan dena. Beste aldi batean gai berek jarraikiko dugu.)

A. APAT ETXEBARNE